


Bidasoako azken lamina

BIDASOAKO AZKEN LAMINA (Zatia)



Handik aurrerakoa nahiago zuen ez gogoratu. Geroago jakin zuenez, Maripetraliñ laminak, bikotearen zorionaz jelosturik, gau batez mutilari bidera irten eta gezurrik higuingarrienak kontatu zizkion. «Bai, ikusiko duk, erabat liluratuturik hauka llederrek eta berak ere maite hauela uste duk. Ai, gizajoa. Laminak oso aldakorrek gaituk. Eztian ezti, baina zitalean inor baino zitalago. Begira, hitaz aspertzen denean, kris-kras jango hau, beste batekin lasai joateko», kontatu zion doilor hark mutil harrituari.

Harrezkero Etxebeltzeko mutila ez zen lehengoa izan. Herriko atsoen lamin ipuinetan ere antzerakoak aditu zituen nonbait eta ez zen gehiago ibaira ilargitan agertu.

Laminak gau osoak eman zituen zain, tristurak arintzeko zapo kantua eta ur marmarra beste lagunik gabe. Egun argiz ere arriskatu zen behin baino gehiagotan, eta baita ikusi ere bere bihotzeko azukre koxkorra; noraezean, triste, zurbil, bere begi beltz ederren distira moteldurik.

Ezkundu zen egunean ere sasi ostetik ikusi zuen bere irudi goibel dotoretua adore gabe elizako bidea hartzen. Baita haren zerraldoa handik egun gutxira kanposantu bidean pasatzen.

 Bilatu irakurgai zati horretan honako hitz edo egitura hauen baliokideak. Idatzi atzizki eta guzti.

- | | | |
|-------------------------|--------------------------|-------------------|
| ☆ ur hotsa | ☆ orduetik aurrera | ☆ sastraka |
| ☆ koitadua | ☆ leuntzeko | ☆ hilkutxa |
| ☆ gorabeheratsuak | ☆ gozo | ☆ goibel |
| ☆ zeharo | ☆ krudel | ☆ hilerri |
| ☆ gurago | ☆ azaldu | ☆ zuri-zuri |
| ☆ txoraturik | ☆ gaiztoago | ☆ dirdira |
| ☆ oroitu | ☆ gogaitzen | ☆ galduta |
| ☆ nazkagarrienak | ☆ itxura denez | ☆ kemen |

 Atal horren hasieran aldatu egin da pertsonaien jarrera. Nor izan da aldaketa horren eragilea?

Zer esan nahi du laminak esaldi honekin?: «Eztian ezti, baina zitalean inor baino zitalago.»

Horren antzera, osatu hurrengo horiek:

- A *Onean*, *baina*
- B *Zintzoan*, *baina*

Zati hori honela hasi da: «Handik aurrerakoa nahiago zuen ez gogoratu.» Idatz ezazu, laburkiro, imajinatzen duzun hasiera zoriontsua, 47. orrialdean.

 Bilatu 79. orrialdean zati horri dagokion irudia eta itsatsi. Egizu gauza bera hurrengo orrialdeetako testu zati bakoitzean irakurri ondoren.


Orduan, etsipenez eta tristuraz beterik, betiko lo egitea erabaki zuen eta, lobelar trago haundi bat hartu ondoren, kobako ardilarrupean murgildu zen.

Osineko uraren fereka freskoak fereka epelago batzuk ekarri zizkion gogora eta bere ile horaila harri gainean eserita orrazten ari zelarik, saminak ahaztu eta gau ilargitsuan bizipozez murgiltzea erabaki zuen.

Aurrean zuen ilargi amandrea, irribarretsu, gauari poza eta goxotasuna ematen. Hark ere izaten zituen gorabeherak, ilbeherak, laino lodiak etsai, baina ez zuen etsitzen eta han agertzen zen berriro, bere oinazeak ahaztuta, xarmaz beterik.

Bidasoa gaziturik hiltzen den lekuraino atzera-aurrera bat egingo zuen eguna argitu aurretik, lehenago sarri egin ohi zuen bezala.

Putzuetan murgil egitean, amuarrain gutxi eta zenbait itsu edo begi-bakar ikusteak harritu zuen. Sorginzubitik pasatzean burrundara handia sumatu zuen gainean. Izututa, ahal zuen lekuan ezkutatu zen. Zer halako ote zen jakin nahirik burua atera zuenean suzko begidun izaki zapal eta presati batzuk –herensugeak ote?–, ikusi zituen errepidean zehar. Beherago, lehenago gardena zen erreka Bidasoarekin elkartzten den lekuan urpetik igerian zihoalarik, ur gorrixka kirasdun batek begiak erre zizkion eta, larriturik, lehorrera irten behar izan zuen amuarrain begi-bakarrak gogoan zituela.



Bilatu irakurgai zati horretan honako hitz edo egitura hauen baliokideak. Idatzi atzizki eta guzti.

- | | | |
|-----------------------|----------------------|----------------------|
| ☆ sartu | ☆ aldarreak | ☆ burrunba |
| ☆ horizta | ☆ amore ematen | ☆ edertasunez |
| ☆ penak | ☆ hodei | ☆ beldurtuta |
| ☆ desesperazioz | ☆ minak | ☆ ostendu |
| ☆ laztan | ☆ alaitasunez | ☆ ostera |
| ☆ putzuko | ☆ amama | ☆ estuturik |
| ☆ leizeko | ☆ ahantzi | ☆ maiz |
| ☆ burura | ☆ garbia | ☆ eguna urratu |



Ilargiaren aipameneak zein figura literario egiten dute pasarte horretan?

Zein antzekotasun dago lederen egoeraren eta Ilargiaren gorabeheren artean?

Zein da Bidasoa gaziturik hiltzen den lekua?

Zerk harritzen du leder Bidasoan zehar egin duen ostera edo ibilalditxo horretan?

Pasarte horretako azken parrafoan bada metafora bat. Zeren metafora? Idatzi testu zatia eta esanahia.



Jadanik gau hasierako bizipoz hura apaldua zuen baina ilargi musugorria, laminen eguzkia, eder eta kilikagarri ikusteak aurrera jarraitzeko ausardia eman zion. Izar n̄ir̄nkariak, hontzaren ulua, kate zakurraren zaunkak...; une batez, dena betiko lekuan zegoela zirudien.


Zenbat gau zituen pasatuak ibai hartan gora eta behera. Maitaleen kontuak, angula harrapatzaileen zalapartak, jaiotza edo heriotza zen etxeetako gorabehera urduriak... hurbiletik aditzea gogoko zuen. Gau hartan ere, ibaiaren alde batean nahiz bestean berbaroa sumatzen zuenean, alderatuz, begiak zolitzen zituen baina ez zuen batere ulertzen txipirri-txaparra hura. Dudarik gabe, denbora luzea zen iragana azkenengo alditik. Halere, bizi-bizirik sentitzen zituen bere baitan ema-berotasuna eta mutil lerdenak zorabiatzeko irrikia.

Gaua ez zihoakion oso dotore baina zubi gaineko gizakume txapeldun hura ikustean dardara kilikatsu bat hedatu zitzaion gorputz guztira. Txapela ez zuen biribila, Etxebeltzekoak bezala, hiru puntakoa baizik. Ez zitzaion harrigarri egin, gauza jakina baitzen kostaldeko herri hauetan modak oso aldakorrak zirela. Eskuan ageri zuen makilak ere ez zuen lizar makila antzik.

Ileak orraztu, eztarria leundu eta ibai ertzeko sastraka artetik koplak hasi zitzaion zuzentzen: Zubi gaineko mutil lerdena / zurea nindukezu ni naizen dena.

 Bilatu irakurgai zati horretan honako hitz edo egitura hauen baliokideak. Idatzi atzizki eta guzti.

- | | | |
|---------------------|---------------------|---------------------|
| ☆ baretua | ☆ adausiak | ☆ sasoikoak |
| ☆ hurretik | ☆ ernetzen | ☆ sasitza |
| ☆ ordurako | ☆ gustuko | ☆ erakargarri |
| ☆ harrabotsak | ☆ zabaldu | ☆ arraro |
| ☆ zorion | ☆ igertzen | ☆ gozatu |
| ☆ adorea | ☆ zurrumurrua | ☆ itxurarik |

 Ilargiari orain arte hainbat adjektibo eta ezaugarri egokitu dizkio egileak. Egizu horien zerrenda (5-6).
Amandre. / irribarretsu. / (x)armagarri. / musugorri. eder eta kilikagarri. / laminen eguzki

Zati horretan hainbat onomatopeia irakurri dugu, hotsen itxura duten hitzak, alegia. Osatu zerrenda:

- | | | |
|----------------|---------------|----------------|
| izarrek | behiek | urak |
| hontzek | zaldiek | haizeak |
| zakurrek | lehoiek | autoek |
| otsoek | txoriek | ateek |
| astoek | usoek | oilarrek |

Beste hau ere onomatopeia da. Zerena? Txipirri-txaparra: gizakion hizketa...
Gizakien mintzoa, zer dela eta egiten zitzaion arrotz gau hartan?

- Denbora asko zelako gizakien mintzoa entzuten ez zuela.
- Zorabiatuta zebilenez, ondo aditzen ez zuelako.
- Berari ezezaguna zitzaion hizkuntzan zihardutelako.

Laminak, ema-berotasunak eraginda, proposamen zuzena egin dio gizakume makiladunari; zelako amaiera emango zenioke narrazioari? Idatzi hurrengo orrialdeetako lerroetan.



Egizu zati honetan narrazioaren hasiera.

Handwritten area with horizontal dotted lines for writing the beginning of the story.



Ondoko lerroetan hasita, narrazioaren amaiera asmatu behar duzu.

Handwritten area with horizontal dotted lines for writing the end of the story.

A large light blue rounded rectangle containing 25 horizontal dotted lines for writing.



Ea egitura batzuk ongi jaso dituzun. Bete hutsune horiek beheko zerrendetako aukera zuzenarekin.

1. «Handik aurrerakoa nahiago zuen ez ^{A)}..... »
2. «Bai, ikusiko duk, erabat liluraturik ^{A)}..... Ilederrek eta berak ere maite ^{B)}..... uste duk. Ai, gizajoa. Laminak oso aldakorrak ^{C)}..... »
3. «Herriko atsoen lamin ipuinetan ^{A)}..... antzerakoak ^{B)}..... aditu zituen ^{C)}..... nonbait eta ez zen gehiago ibaira ^{d)}..... agertu.»
4. «Osineko uraren fereka ^{A)}..... beste fereka ^{B)}..... ekarri zizkion gogora...»
5. « ^{A)}..... ere izaten zituen gorabeherak, ilbeherak, laino lodiak etsai, ^{B)}..... ez zuen etsitzen...»
6. «...amurrain gutxi eta zenbait itsu edo begi-bakar ^{A)}..... harritu ^{B)}..... Sorginzubitik ^{C)}..... burrundara handia sumatu zuen gainean.»
7. «...ur gorrixka kirasdun batek begiak erre ^{A)}..... eta larriturik lehorrera irten behar izan ^{B)}..... »
8. «Jadanik gau ^{A)}..... bizipoz hura apaldua zuen baina ilargi musugorria, laminen eguzkia, eder eta kilikagarri ^{B)}..... aurrera jarraitzeko ausardia eman ^{C)}..... »
9. «Gaua ez zihoakion oso dotore ^{A)}..... zubi gaineko gizakume txapeldun hura ^{B)}..... dardara kilikatsu bat hedatu zitzaion gorputz guztira.»
10. «Eskuan ageri zuen makilak ^{A)}..... ez zuen ^{B)}..... lizar makila ^{C)}..... »

- | | |
|--|--|
| 1. ^{a)} gogoratzea / gogoratu | 6. ^{a)} ikusteak / ikustea
^{b)} zioten / zuen / zen
^{c)} pasatzerakoan / pasatzean / pasatutakoan |
| 2. ^{a)} hauka / zaitu / zauzka
^{b)} zaituela / hauela / dizula
^{c)} gara / gaituzu / gaituk | 7. ^{a)} zizkion / zion
^{b)} zuen / zen |
| 3. ^{a) / b) / c)} ere (Zein tokitan?)
^{d)} ilargiz / ilargiarekin / ilargitan | 8. ^{a)} baserako / basierako
^{b)} ikusteak / ikustea
^{c)} zion / zioten / zien |
| 4. ^{a)} freskoak / freskoa
^{b)} epelagoak / epelago batzuk / epelagorik | 9. ^{a)} baino / baina
^{b)} ikustean / ikusterakoan |
| 5. ^{a)} Hura / Hark
^{b)} baina / baino | 10. ^{a) / b)} ere (Zein tokitan?)
^{c)} antzarik / antzik |



Narrazioko metafora hori eredu harturik, osa itzazu egitura bereko beste hiru. Zure kideek igarri egin behar dute esanahia.

Eredua: «Suzko begidun izaki zapal eta presati batzuk.»

Egitura:zkodun + izena + adjektiboa + adjektiboa

1.
2.
3.



KONTROL PROBA

1. Testuinguruaren laguntzaz, eman hamar hitz horien sinonimo bana.

<i>aspertzen</i>	«...hitaz <u>aspertzen</u> denean, kris-kras jango hau, beste batekin lasai joateko»,	<i>oinazeak</i>	«...baina ez zuen etsitzen eta han agertzen zen berriro, bere <u>oinazeak</u> ahaztuta, <u>xarmaz</u> beterik.»
<i>doilor</i>	kontatu zion <u>doilor</u> hark mutil harrituari.»	<i>xarmaz</i>	
<i>goibel</i>	«...sasi ostetik ikusi zuen bere irudi	<i>berbaroa</i>	«...ibaiaren alde batean nahiz bestean <u>berbaroa sumatzen</u> zuenean, alderatuz, begiak <u>zolitzen</u> zituen...»
<i>adore</i>	<u>goibel</u> dotoretua <u>adore</u> gabe elizako bidea hartzen. Baita haren <u>zerraldoa</u>	<i>sumatzen</i>	
<i>zerraldoa</i>	handik egun gutxira...»	<i>zolitzen</i>	

2. Erantzun hurrengo galderi.



1. Maripetraliñek onbeharrez, hots, asmo onez abisatu al zuen mutila? B E
2. Ileder eta Etxebeltzeko mutila elkarrekin maiteminduta al zeuden? B E
3. Ilederrek bien arteko harremana apurtu al zuen? B E
4. Bien artekoa ahazturik ezkondu al zen mutila beste batekin? B E
5. Etxebeltzekoa, itxura batean, maiteminez hil al zen? B E
6. Ilederrek bere buruaz beste egiteko tentaldia izan al zuen? B E
7. Gau ilargitsu batean irten al zen lamina maitasun bila? B E
8. Osteratxo bat egitera irten zenean betiko moduan aurkitu al zuen ibaia? B E
9. Ibai ertzeko gizakien kontuekin gozatzen al zuen laminak? B E
10. Lamina, jakin gabe, goardia bati hasi al zitzaion kantuan? B E

3. Bete hurrengo hamar hutsuneak.

1. «Geroago jakin ^{A)}....., Maripetraliñ ^{B)}..... (...) mutilari bidera irten eta gezurrik higuigarrienak kontatu zizkion.»
2. «Laminak gau osoak eman zituen ^{A)}.....»
3. «Egun argiz ^{A)}..... arriskatu zen ^{B)}..... behin baino gehiagotan ^{C)}....., eta baita ikusi ^{d)}..... bere bihotzeko azukre koxkorra ^{e)}.....»
4. «Hark ere izaten zituen ^{A)}..... (...) baina ez zuen etsitzen...»
5. «...atzera-aurrera bat egingo zuen (...) lehenago sarri ^{A)}..... ohi zuen bezala.»
6. «Putzuetan murgil ^{A)}....., amuarrain gutxi (...) ^{B)}..... harritu zuen.»
7. «...une batez, ^{A)}..... bere lekuan zegoela zirudien.»

1. ^{a)} *zuen bezala / zuenez*
^{b)} *laminak / lamina*
2. ^{a)} *zain / zai*
3. ^{a) / b) / c)} *ere* (Zein tokitan?)
^{d) / e)} *ere* (Zein tokitan?)

4. ^{a)} *gorabeberarik / gorabeberak*
5. ^{a)} *egiten / egin*
6. ^{a)} *egitean / egiterakoan / egindakoan*
^{b)} *ikusteak / ikustea*
7. ^{a)} *dena / denek*